

Euskal film arrakastatsuenen rankinga

Atalak: [Zinema](#)

Estreinalditik kasik hamar urte igaro direnean, [Aupa Etxebeste!](#) pelikulak jarraitzen du izaten aretoetan ikusle gehien bildu dituen euskarazko filma. Zein da sekretua? Zer dugu gustuko ikus-entzule euskaldunok?

Filma	Ikusleak	Bildutako dirua	Urtea
Aupa Etxebeste!	71.972	341.504,80	2005
Kutsidazu bidea, Ixabel	45.539	212.724,39	2006
Bypass	36.008	172.934,52	2012
Eutsi!	26.463	136.766,05	2007
Izarren argia	24.737	132.914,66	2010
Dragoi ehiztaria	22.575	94.860,17	2012
80 egunean	21.886	121.613,82	2010
Urte berri on, amona!	14.583	80.823,60	2011
Arriya	9.718	49.831,00	2011
Zorion perfektua	6.282	33.682,74	2009
Sukalde kontuak	4.996	27.183,70	2009
Zigortzaileak	4.427	18.118,95	2010
Amaren eskuak	3.531	20.040,84	2013
Bi anai	1.020	6.527,50	2011
Ander	602	2.684,80	2009

Ona den lanak publikoa erakartzeko gaitasuna izan beharko luke.

Rankingaren lehen postuei begiratuta behintzat, komediak du arrakasta. Tira, rankingean (Espainiako [ICAA](#) institutuaren datuetan oinarritua eta [Irudiz eta euskaraz](#) blogean ikusia) titulu esanguratsuak falta dira, tartean dokumental guztiak (*Barrura begiratzeko leihoak*, *Bertsolari...*), marrazki bizidunak (*Gartxot*, *Kalabaza Tripontzia...*) eta urria izan arren, Ipar Euskal Herriko produkzioa (*Xora...*).

[Bypass](#) filma (ez sinesgarria, ez barregarria, nire ustez) hirugarren postuan ikustea deigarria egin zait (nik [80 egunean](#) edota [Urte berri on amona!](#) nahiko nitzuke podiumean), baita [Ander](#) lan txukunak hain jende gutxi erakarri izanak

ere, nahiz eta ulertzekoa den, ez baitzuten, salbuespenenak salbuespen, areto komertzialetan eskaini.

Hori du gaitzetako bat (euskal) zinemak: pelikula ugari ez dira estreinatzen, edo oso gutxi irauten dute pantailan, estudio handiek eta lehia basatiak kontrolatzen dituzten banaketa politikak eraginda. Banatzaile handiek pelikula paketeak adosten dituzte areto konbentzionalekin, eta euren aginduetara geratzen dira hauek, besterik eskaintzeko lekurik gabe ia (eta beste zer edo zer ematekotan, "komertzialenak" baino ez du aukerarik, irizpide nahiko eztabaidagarrien arabera). Maiz, zirkuitu alternatiboetan egin behar dute bidea pelikulek, baina oraindik garatu beharreko alternatiba da hau.

Bitartekarietik menpekotasun horretatik harago, pelikula bat zerk egiten duen komertzial ez dut garbi atera rankingari erreparatuta. Zer pisu du publizitateak eta marketinak? Ahoz ahokoak? Kalitateak? Liburu arrakastatsu batean oinarrituta egoteak (begira zein harrera ezberdina izan duten [Kutsidazu bidea](#), [Ixabel](#) eta [Amaren eskuak](#) lanek)? Istorioak? Hautaturiko gai eta generoak? Zuzendari eta aktoreen ospe edo izen onak? Aurrekontuak?...

Ikusiena sarri ez da onena, baina ona den lanak publikoa erakartzeko gaitasuna izan beharko luke.

Esteka: <https://blogak.argia.eus/mikel-garcia/2014/04/28/euskal-film-arrakastatsuenen-rankinga/>